



DEBAko UDALA

2017SPLE0004  
4. BILERA: OHIKOA 2017-04-27

## Udalbatzarraren bilkura-akta

**Bilkura:** arauz deitutako ohizko Udalbatzarra

**Zenbatgarrena:** laugarrena

**Eguna:** 2017/04/27

**Hasiara-ordua:** 19:30

**Amaiera-ordua:** 19:50

**Onarpen-eguna:** 2017/05/25

### **Bertaratutako zinegotzi hautatuak:**

PEDRO M<sup>a</sup> BENGOETXEA LOIOLA

AITOR SALEGI IRURETA

ANE MIREN EGIDAZU ELOSUA

M<sup>a</sup> LUISA ALBIZU BEITIA

IÑAKI ESNAOLA OSTOLAZA

MAIDER ZUBIKARAI BERISTAIN

AIMAR LASA URKIRI

ITZIAR IRIZAR BERISTAIN

JOSE LUIS ALBIZU BERISTAIN

MIREN ELISABETH URTEAGA IÑARRA

CRISTOBAL DEL CORTE LAPACHERIE

IÑIGO CAMBRONERO ALKORTA

UNAI LEKUBE ARANBERRI

ANA BELEN HIDALGO CORRAL, idazkaria

### **Azaldu ez diren zinegotzi hautatuak:**

### **Bertaratzeak eta irteerak:**

Itziar Irizar zinegotzia, Udalbatzarra, gai zerrendako 4. punuta lantzen zegoela sartu da.

### **Gora-beherak**



## DEBAko UDALA

### **Aztergaiak:**

1. Aurreko akta irakurri eta hala badagokio, onestea. (2017/03/30).
2. Debako hondartzako "Ondargain" taberna-kafetegia ustiatzeko administrazio kontratu berezia Esleipen proposamena.
3. Alkatetza Dekretuen berri ematea.
4. EAEko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien sala. 777/2015 Apelazio errekurtsua. 125/2017 sententziaren berri ematea.
5. Eskariak eta galderak.

### **Esan-eginak eta erabakiak**

#### **1.- Aurreko akta irakurri eta hala badagokio, onestea. (2017/03/30)**

2017ko martxoaren 30eko bilkuraren akta bozkatu egin da eta aho batez onartu da, Udalbatza osatzen duten legezko hamahiru zinegotzietatik hamabi bilkuran direla.

#### **2.- Debako hondartzako "Ondargain" taberna-kafetegia ustiatzeko administrazio kontratu berezia. Behin behineko esleipen proposamena.**

#### ***Erabakia.***

Ingurumena, Zerbitzuak eta Mantenimendurako Obren batzordearen proposamenaren berri eduki ondoren, Udalbatzara osatzen duten hamahiru zinegotzietatik hamabi bilkuran direla, Udalbatzarrak ahobatez hartu du erabakia:

**Lehenengo.-** Haika Aizpurua Galdonari behin-behineko izaeraz esleitzea Debako hondartzako "Ondargain" taberna-kafetegiaren ustiapenaren kontratua.

**Bigarrena.-** Urteko kanona 23.000 eurokoa izango da eta kontratuaren iraupena berriz, 5 urtekoa kontratua sinatzen denetik kontaktzen hasita.

**Hirugarrena.-** Behin-behineko esleipena behin betikotzat automatikoki joko da errekerimendua jaso eta 5 laneguneko epean, esleipendunak ondokoak betetzen baditu:

- 1) 5.750 euroko behin betiko bermea eratzea.
- 2) Erantzukizun zibileko poliza 300.000 euro gutxienez eratzea.



## DEBAko UDALA

**Laugarrena.-** Erabaki hau Haika Aizpurua Galdonari jakinaraztea.

### **3.- Alkatetza Dekretuen berri ematea.**

Idazkariak informatu du ondorengo Dekretu hauek eman dituela Alkateak:

32	2017/04/11	Santa Katalinako lurrak	
33	2017/04/12	Udaltzain baten oporrak ordezkatzeko kontratazioa 2017ko apirilaren 17tik 24era.	
34	2017/04/12	Udaltzain baten oporrak ordezkatzeko kontratazioa 2017ko apirilaren 17tik 24era.	
35	2017/04/12	Eguneko Zentroko langile baten oporrak ordezkatzeko kontratazioa 2017ko apirilaren 18tik 21era.	
36	2017/04/12	Exteco enpresaren Xehetasun Azterlana ez onartzea.	2017URED0001
37	2017/04/18	Argiteri publikoaren auditoretza energetikoa egiteko kontratuaren esleipena.	2017SCOU0006
38	2017/04/18	Debako Astillero eta Osio kaleak berriro urbanizatzeko lanen esleipena.	2017SCOU0003
39	2017/04/18	Debako Euskararen Historia Soziala ikertzeko 2017ko lanak esleitzea.	
40	2017/04/20	Eguneko Zentrorako aulkiak erostea	2017SCOU0007
41	2017/04/24	Eguneko Zentroko langile baten oporrak ordezkatzeko kontratazioa: 2017ko apirilaren 24tik 26ra.	

Udalbatzarra jakinaren gainean gelditu da.


### **4.-EAEko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien sala. 777/2015 Apelazio errekurtsua. 125/2017 sententziaren berri ematea.**

Udalbatzarra jakinaren gainean gelditu da.

### **5.- Eskariak eta galderak.**

Maidar Zubikarai zinegotziak galdetu du, eguneko zentroko tabernaren ustiaketa kontratuaren esleipen prozesuaren inguruan.

Alkateak jardunbidearen berri eman du eta taberna bihar irekiko dutela esan du.



## DEBAko UDALA

Alkateak, Santa Catalina eremuko lursailak 30.000 euroan eskuratu direla berri eman du eta horretarako alde zuzenetik zegoen kontratua berriro behar izan dela azaldu du.

Aimarrek galdetu dio Cristobali hondakinen-mahaiaren bileraren inguruan. Cristobalek joan den astean egindako bileraren berri eman du, eta esan du, aktarekin batera datuen grafikoak banatuko direla. Gaineratu du, orain arteko emaitza ona izan dela, %50eko birziklapena lortu delako baina neurri zuzentzaileak aplikatuko direla eta azaldu du neurri horiek zeintzuk izango diren.

Zaborren harira Mainerrek esan du, kalean keja bat jaso duela, izan ere, ontziek ez daukate pedalik.

Cristobalek erantzun du, ontziei pedala jartzea ez dela samurra eta irtenbidea izango dela ontzi horiek banatzea sistema berria ezarriko duten herrien artean.

Mainerrek mahairatu du zabor dexente egoten dela ontzietatik kanpo eta galdetu du horren arrazoia zein den. Gogorarazi du uda badatorrela.

Cristobalek erantzun du, kamioiekin arazoak egon direla hauek sarritan hondatu baitira eta bilketan doiketak egin beharko direla, hori guztia zerbitzua garestitu gabe.

Alkateak gogora arazi du oraindik ere 200 txartel daudela jasotzeko.

Besterik gabe, Alkate-Udalburuak amaitutzat eman du bilera, eta, eztabaidatutakoa nahiz erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizen honek, hori guztia idatzi eta ziurtatu egin dut.

Deban, 2017ko apirilaren 27an

**IDAZKARIA**

